

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Raquel Pérez Ayerra izendatu dute Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko Kabineteko buru

Joan den abuztuaren 24an Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Departamentuaren egitura osatu ondoren izendatu dute

Lunes, 29 de agosto de 2011

Lourdes Goicoechea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak Raquel Pérez Ayerra kazetaria izendatu du Departamentuko Kabineteko buru.

Raquel Pérez Ayerra (Iruña, 1974ko otsailak 25) ezkondua dago eta seme eta alaba bana ditu. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen (Informazioaren Zientzietan espezializatu zen), Komunikazio Publikoan graduondoko programa egin zuen Nafarroako Unibertsitatean eta Ikerketarako Kazetaritzako masterra egin zuen Nottinghameko Unibertsitatean (Ingalaterra).

Lanbide karrera komunikazioaren eta Europako proiektuen kudeaketaren arloetan egin du, batez ere. Irakasle laguntzaile aritu zen Nafarroako Unibertsitateko Kultura eta Ikus-entzunezko Komunikazioa Departamentuan, Madrilgo "Institute for International Research" multinazional britainiarrean ere lan egin zuen, baita Merkataritza Ganberako Nafarroaren Sustapen eta Garapen Unitatean eta CEINen (Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa) ere. Londresen BBCrekin eta hainbat irratitan ere kolaboratu izan du. 2006ko ekainetik iragan uztailaren 2ra arte Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak Departamentuko Kabineteko burua izan zen.

Raquel Pérezek Javier Belarra Gorrochateguiaren kargua hartuko du. Aurreko legegintzaldiko bi departamentuak (Landa Garapeneko eta Ingurumenekoa eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua) batu



Raquel Pérez Ayerra

ondorengo trantsizio prozesua amaitu eta iragan abuztuaren 24an Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Departamentu berriaren egitura organikoa osatu ondoren egin da ordezkapena.